

# Urteko jarraipen-txostena EZKERRALDEA-MEATZALDEA ESKUALDEETAKO PLAN ESTRATEGIKOA 2024

**B3** BIC BIZKAIA  
EZKERRALDEA  
UP! EUSKADI



## Ezkerraldea-Meatzaldea eskualdeetako plan estrategikoaren 47 jarduketak.

Jarduketa horien helburua jardun-eremu lehenetsiak funtsezko eremuetan indartzea da (hala nola ekonomiaren sustapena, enplegua, gizarte-kohesioa, mugikortasuna eta jasangarritasuna).

### 6 proiektu sustatzaile

1. EZKERRALDEA - MEATZALDEA PARKE TEKNOLOGIKOA  
7 jarduketa.
2. OSASUN POLOA: MED.TECH PRODUKTUAK ETA ZERBITZUAK  
2 jarduketa.
3. LURZORU KUTSATUAK BERRESKURATZEA  
5 jarduketa.
4. JARDUKETA INTEGRALA AUZO KALTEBERETAN  
7 jarduketa.
5. GARRAIO JASANGARRIAREN EREDUA. C2 (BILBO- MUSKIZ) LINEAKO JARDUKETA  
11 jarduketa.
6. INDUSTRIA-ONDAREARI ETA ITSASADARRARI BALIOA EMATEA  
15 jarduketa.



47  
JARDUKETA


- Aurrerapen-maila:
1. Bertan behera utzita
  2. Hasi gabe
  3. Diseinatzen
  4. Gauzatzen
  5. Burututa

EZKERRALDEA MEATZALDEA		Jarduketak	AURRERAPEN-MAILA						
			EJ	BFA	1	2	3	4	5
EM1 Ezkerraldea-Meatzaldea parke teknologikoa	EM1.01	Sarbideak eta urbanizazioa	X	X					2021
	EM1.02	Energy Intelligence Center eta Egoitza-eraikina	X	X					2023
	EM1.03	Tresneria	X	X				X	
	EM1.04	María Telkes eraikina	X					X	
	EM1.05	Ortuellan lursailak erostea	X					X	
	EM1.06	Ezkerraldea-Meatzaldea parke teknologikoa garatzea	X	X				X	
	EM1.07	Energia berriztagarrien HUBa - Somorrostro Irakas-Gunea		X				X	
EM2 Osasun Poloa: Med-Tech produktuak eta zerbitzuak	EM2.01	Kokapenean inbertitzea	X						2022
	EM2.02	Enpresa bio-sanitarioen eraikina	X	X				X	
EM3 Lurzoru kutsatuak berreskuratzea	EM3.01	Burtzeña Parkea (lurzoruak erostea eta berroneratzea)	X					X	
	EM3.02	Playa Barri eta Sakoni, Erandio (lurzoruak erostea eta berroneratzea)	X					X	
	EM3.03	Etxeuli, Santurtzi (lurzoruak erostea eta berroneratzea)	X					X	
	EM3.04	Navacel eraikina (erostea eta berroneratzea)	X					X	
	EM3.05	Babcok Trapaga jantokiak erostea	X					X	
EM4 Jarduketa integrala auzo kalteberetan	EM4.01	ABANTO-ZIERBENA Las Peñucas auzoa (200 etxebizitza)	X					X	
	EM4.02	PORTUGALETE, GRUMETE DIEGO kalean esku hartzea (23 etxebizitza)	X						2023
	EM4.03	SANTURTZI, AURORA VILDÓSOLA delakoan esku hartzea (104 etxebizitza)	X					X	
	EM4.04	VALLE DE TRÁPAGA-TRAPAGARAN, SAN ANDRES AUZOA (200 etxebizitza)	X					X	
	EM4.05	EtxeTIC proiektua		X					2024
	EM4.06	Sestaoko egoitza, bizikidetz-unitateen eredupean		X				X	
	EM4.07	Egoitzak bizikidetz-unitate bihurtzea		X			X		

Aurrerapen-maila:  
 1. Bertan  
 behera utzita  
 2. Hasi gabe  
 3. Diseinatzen  
 4. Gauzatzen  
 5. Burututa

EZKERRALDEA	MEATZALDEA	JARDUKETAK	AURRERAPEN-MAILA							
			EJ	BFA	1	2	3	4	5	
EM5 Garraio jasangarria / C2 lineako jarduketa	EM5.01	Urbinagako trukatzegunea	X			X				
	EM5.02	Bizkai Bizi		X						2024
	EM5.03	Bizkai Park		X						2024
	EM5.04	Bizkai Puntu		X						2023
	EM5.05	Erandioko Bulebarra		X					X	
	EM5.06	Barakaldo eta Erandioren arteko zubi mugigarria		X					X	
	EM5.07	Bidegorri (Bilbo – Barakaldo)		X						2023
	EM5.08	Ezkerraldeko Gurutzetako Ospitalera ailegatzeko sarbideak		X						2023
	EM5.09	Ibai-azpikoa, itsasadarraren azpiko tunela		X			X			
	EM5.10	Mamariga Santurtzi bidegorria		X						2024
	EM5.11	II. trukatzegunea (Gurutzeta), Arrontegi-Gurutzeta norabidean		X			X			
EM6 Industria-ondareari eta itsasadarrari balioa ematea	EM6.01	Sestaoko Labe Garaia zaharberritzea eta Interpretazio-zentroa sortzea	X	X						2023
	EM6.02	Orconera industria-ondarearen zentroa	X							2024
	EM6.03	Industria-ondarearen ibilbidea	X							2023
	EM6.04	RENFEko geltoki historikoak egokitzea + Tren historikoa	X						X	
	EM6.05	Gasolino	X							2023
	EM6.06	Rialia museoa	X							2022
	EM6.07	Sestaoko Labe Garaian eta Langileen Etxebizitzan bisitariak hartzeko gunea	X	X						2023
	EM6.08	Burdin Mendien Bide Berdea	X							2023
	EM6.09	Itsaslurreko bide berdea eta Kantabriarekiko konexioa	X							2023
	EM6.10	Seinaletika, Posizionamendu-plana, Gobernantza-eredua	X							2023
	EM6.11	Agurtza atunontzia zaharberritzea	X							2023
	EM6.12	Bizkaiko Labe Garaian trena zaharberritzea	X							2022
	EM6.13	Pobaleko Burdinola		X					X	
	EM6.14	Itsasadarrari eta industria-ondareari balioa emateko ekitaldiak		X						2023
	EM6.15	Unesco Katedrarekin lankidetzan aritzea		X						2023

## 1.1. JARDUKETEN AURRERAPEN-MAILA



Burututa	24
Gauzatzen	19
Diseinatzen	3
Hasi gabe (Urbina)g	1
Bertan behera utzita	0

### 1.3. EUSKO JAURLARITZAREN JARDUKETEN AURREKONTU OSOA NOLA ERABILI DEN

#### EM 1

Ezkerraldea-Meatzaldea parke teknologikoa


10.000.000 €  
10.000.000 €



#### EM 2

Osasun poloa: med.Tech produktuak eta zerbitzuak


10.000.000 €  
10.000.000 €



#### EM 3

Lurzoru kutsatuak berreskuratzea


60.000.000 €  
60.000.000 €



#### EM 4

Jarduketa integrala auzo kalteberetan

\* 18.000.000 €  
18.000.000 €



#### EM 5

Garraio jasangarria. C2 (Bilbo-Muskiz) lineako jarduketa


\* 4.000.000 €  
0 €



#### EM 6



6. Ondare industrialari eta itsasadarrari balioa ematea

10.000.000 €  
10.000.000 €



EM 1	% 100
EM 2	% 100
EM 3	% 100
EM 4	% 100
EM 5	% 0
EM 6	% 100

\* EM5eko 4 milioiak «Ezkerraldeko auzoak birgaitzea» delakora transferitu dira, Urbinagako jarduketarako funtsak erreserbatu edo esleitu direlako jada, eta prozesuak aurrera egiten duelako.


 Planifikatutako aurrekontu globala  
 Erabilitako aurrekontu globala

Planifikatutako aurrekontua  
**108.000.000 €**

Erabilitako aurrekontua  
**108.000.000 €**

Aurrekontuaren erabilera  
**% 100**

### 1.3. BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN JARDUKETEN GAUZATZE GLOBALA



\* Garraio jasangarriko jarduketak berrantolatu egin dira EM5 proiektu sustatzailean egokitzapena hobetzeko, eta EM5 eta EM6 proiektu sustatzaileei dagokien aurrekontua birsailkatu egin da.

Planifikatutako aurrekontu globala	Planifikatutako aurrekontua	Erabilitako aurrekontua	Aurrekontuaren erabilera
Erabilitako aurrekontu globala	<b>67.379.804 €</b>	<b>60.815.142 €</b>	<b>% 90</b>

1.4. PROIEKTU  
SUSTATZAILEEN  
AURREKONTU OSOA  
NOLA ERABILI DEN

PROIEKTU SUSTATZAILEAK			PLAN ESTRATEGIKOAREN AURREKONTUA		
			ESLEITUTA	ERABILITA	Esleitutako %
EM1	Ezkerraldea-Meatzaldea parke teknologikoa + EIC	EJ*	46.195.267	50.171.095	% 108,61
		BFA	29.079.529	30.483.105	% 105
		GUZTIRA	<b>75.274.796</b>	<b>80.654.200</b>	<b>% 107</b>
EM2	«Osasun Poloa», osasun-sistemara bideratutako produktuak eta zerbitzuak garatzeko nodoa	EJ*	10.000.000	10.000.000	% 100
		BFA	500.000	0	% 0
		GUZTIRA	<b>10.500.000</b>	<b>10.000.000</b>	<b>% 95</b>
EM3	Lurzoru kutsatuak berreskuratzea	EJ*	60.000.000	60.000.000	% 100
		BFA	-	-	-
		GUZTIRA	<b>60.000.000</b>	<b>60.000.000</b>	<b>% 100</b>
EM4	Jarduketa integrala auzo kalteberetan	EJ*	18.000.000	18.000.000	% 100
		BFA	1.850.000	1.759.000	% 95
		GUZTIRA	<b>19.850.000</b>	<b>19.759.000</b>	<b>% 100</b>
EM5	Garraio jasangarriaren eredua	EJ*	0	0	%-
		BFA	34.794.680	27.293.504	% 78
		GUZTIRA	<b>34.794.680</b>	<b>27.293.504</b>	<b>% 78</b>
EM6	Ondare industrialari eta itsasadarrari balioa ematea	EJ*	10.000.000	10.000.000	% 100
		BFA	1.155.595	1.279.533	% 111
		GUZTIRA	<b>11.155.595</b>	<b>11.279.533</b>	<b>% 101</b>
EM EPE, GUZTIRA			<b>211.575.071</b>	<b>208.986.237</b>	% 99
EUSKO JAURLARITZA			<b>144.195.267</b>	<b>148.171.095</b>	% 102,76
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA			<b>67.379.804</b>	<b>60.815.142</b>	% 90

\* Barne hartzen dira Parke Teknologikoak esleitutako kopurua (36.195.267) + Berpizturen 10.000.000ak

**PARKE TEKNOLOGIKOA:** Parke Teknologiko berriaren plan estrategikoan aurreikusitako hasierako inbertsioa osatu egin da, eta, gaur egun, garatzen jarraitzen da. Helburua izaera teknologiko nabarmena duten enpresentzako erreferentziazko espazio gisa finkatzea da, batez ere energiaren sektorean. Gaur egun, industria-erabilerarako lurzorua % 20 beteta dago: Egoitza-eraikinak, EIC Eraikinak eta María Telkes eraikinak 21.000 m<sup>2</sup>-ko azalera barne hartzen dute, eta Petronorrek eta ADIk, berriz, 13.000 eta 11.000 metroko bi lursail erosi dituzte.

Eraikinei dagokienez, **Egoitza-eraikinak** espazioaren % 35 hartzen du (4419 m<sup>2</sup>), eta enpresa berriek eraikin horretako bigarren eta hirugarren solairuak erabil ditzakete; **EIC eraikinak**, berriz, 5628 m<sup>2</sup> ditu, eta energia-sektorearekin lotutako enpresek euren jarduerak garatzeko erabiltzen dituzten laborategiek eta bulegoek hartzen dute eraikin horretako espazio osoa (% 100).

**TRESNERIA: laborategiak** 2024an erosi dira, eta, aurreikuspenen arabera, 2025ean martxan jarriko dira. Gainera, antzeman denez, urte horretan amaituko dira 2023an adjudikatutako makina espezializatuak (testatze-hodiak, ganbera hiperbarikoa...) fabrikatzeko eta instalatzeko lanak. Lan horiek BFA eta EJren 14 milioi euroko –guztira– inbertsioa eta 3 milioi euroko inbertsio gehigarria –makinak hartuko dituen pabiloia egokitzeko– jaso dute.

**MARIA TELKES:** 8700 m<sup>2</sup>-ko eta 6 solairutan banatutako eraikin hori 2025ean jarriko da abian, eta are ezaugarri bereziagoak dituzten proiektuak hartzeko gaitasuna duten industriaurreko espazioak izango ditu, esaterako: Hidrogenoaren Living Lab-a. Enpresa batzuek euren interesa jakinarazi dute, baina orain arte ez da ezer zehaztu.

**ELIKAGAIEN CAMPUSA:** 50 hektareako azalera hartuko duela aurreikusten da, Ortuellan. Gaur egun, lursailaren % 55 titulartasun publikokoa da (201.000 metro Parque Tecnológico S. A. erakundearen jabetzakoak dira, eta 50.000 metro, aldiz, Ortuellako Udalarenak).

**ENERGIA BERRIZTAGARRIEN HUBa:** prestakuntza, erakustaldi, ikerketa eta lankidetzaren alorretarako erabilera anitzeko proposamena da, eta, bertan, energia berriztagarriei aplikatutako hainbat teknologia bateratuko dira. Hala, ekimen hori oso lagungarria izango da Meatzaldea eta Ezkerraldea eskualdeetan talentua sortzeko eta enpresen lehiakortasuna hobetzeko energia berriztagarriei lotutako balio-kate desberdinetan.



María Telkes

ENPRESA BIOSANITARIOEN ERAIKINA:

**2024an, 8 solairu eta 27,1 metroko altuera** dituen eraikin bat eraikitzen hasi da; guztira, **13.524,42 m<sup>2</sup>**-ko azalera du, eta aurrekontua **12,2 milioi eurokoa** da. Aurreikuspenen arabera, **2025ean** amaitu eta entregatuko da; eta, bitartean, bilerak egin dira **Osasun Sailarekin** eta **Osasun Klusterrarekin**, bertan ezarri beharreko tresneria eta kudeaketa-eredua zehazteko.

Eraikinaren helburua zentro aitzindaria izatea da, non enpresek, proiektu aurreratuek eta ekintzaileek lankidetzan jardungo duten gailu medikoak baliozkotzeko eta ziurtatzeko; hala, berrikuntza sustatuko dute 3D, adimen artifizialaren, datuen kudeaketaren eta errehabilitazioaren alorretan.

**LURZORUAK BERRONERATZEA:** Sprilurrek lurzoruak berroneratzeko proiektuak hasi ditu Barakaldon, Sestaon, Trapagaranen, Erandion eta Santurtzin, eta helburua Ezkerraldean 600.000 m<sup>2</sup> inguruko azalera berroneratzea eta haren balioa nabarmentzea da. Lurzoru horiei esker, eskualdean ekimen eta proiektu estrategiko berriak hartu eta industria-garapena eta enplegua sustatuko duten inbertitzaileak erakarri ahal izango dira.

**BURTZEÑA:** erositako lurzoruaren % 80 baino gehiago SPRILURen eta Burtzeña Enpresa Parkeren (BEP) jabetzakoa da, eta gehiago erosteko negoziatzen jarraitzen dute. **2024an, berroneratze-fasea** egin zen **Astilleros eta Zentral Termikoko lursailetan** (70.000 m<sup>2</sup>, 1,3 M €). **Bigarren fasea** (Maser, 80.000 m<sup>2</sup>, 8 M €) onartu egin da eta 2025ean jarriko da abian; eta **azken faseari** dagokionez (Pluma de BASA), berriz, oraindik ez dago hari ekiteko data zehatzik.

**«PLAYA BARRI – SAKONI» ERANDIO:** Playa Barri eta Sakoniko lurzoruak erosteko negoziazioek aurrera jarraitzen dute, eta SPRILUR jabe nagusia denez, hirigintza-kudeaketa gauzatzea errazagoa da. Eremua bost sektoretan banatuta dago, eta sektore bakoitzerako urbanizazio-proiektuak eta azpiegituren plan orokor bat badaude. **2024an**, aurrera egin da **D sektorean**, eta urbanizazio-plana eguneratu eta URAREN baimena lortu da. Udalarekin, ETSrekin eta SPRILURekin hitzarmena sinatu bitartean, **2025ean obrak hasiko direla aurreikusten da.**

**ETXEULI SANTURZTI:** jarduketak **zabortegia zigitatzea** eta **ibaia desbideratzea** barne hartzen ditu. Azken horrek 12 milioi euroko aurrekontua du, idatzita dago jada, eta desbideratze horren ibilbidea aldameneko lursailetatik egingo dela aurreikusten da. Lursail horietako batzuk desjabetzeko prozesua abian dago oraindik (Santurtziko Udalaren laguntzarekin). Aurreikuspenen arabera, lanak 2025ean hasiko dira, zabortegia zigitatzeko izapideek aurrera egiten duten bitartean.

**NAVACEL TRAPAGA:** birgaitze-proiektua 2024an garatu da. Obrak gauzatzeko lizitazioa 2025ean egingo dela aurreikusten da.

**BABCOCK JANTOKIAK:** 2024an, katalogatutako eraikina birgaitzeko proiektua idatzi da, zeina SEPIDESi erosi zitzaion 2023an.



Burtzeña



Babcock Jantokiak Trapagaran



Etxeuli - Santurtzi

EM4. Jarduketa integrala auzo kalteberetan

**UDALERRIETAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZEAK:** gaur egun, **332 etxebizitzatan** ari dira lanean: 150 **Abanto-Zierbenan**, 23 **Portugaleten**, 104 **Santurtzin** eta 55 **Trapagaranen**. Maila anitzetako **esku-hartze** horiek hobekuntzak sustatzen dituzte **etxebizitzetan eta hiri-espazioetan**, bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin. **Birgaitze- eta urbanizazio-lanak** martxan daude, eta aurreikuspenen arabera, 2025ean amaituko dira.

**ETXETIC:** Sestaoko EtxeTIC zentroa 2024ko irailean jarri da abian, eta zerbitzuak Portugaleteko udalerrira ere barne hartzen du.

**SESTAOKO EGOITZA:** egoitza berria eraikitzeko, erositako lokalak eraitsi behar dira, eta hori egin ahal izateko, Aranzadik ikerketa-lan bat egin behar izan du, gerra zibilaren aztarnarik ez dagoenik egiaztatzeko. Lan horiek jada burutu dira, eta obrak 2025ean hasiko direla aurreikusten da.

**BIZIKIDETZA-UNITATEAK:** azpiegiturak erakundearen egoitzak (Marcelo Gangoiti Muskizen, Albiz Santiago Llanos Sestaon eta Otxartaga Ortuellan) bizikidetza-unitate bihurtzea bideragarria denetz aztertzen ari gara. Hala ere, aldaketa horrek egungo egoitza-plazaren kopurua murriztea ekarriko luke. Gainera, Sestaoko egoitza berria eraikiz gero, baliteke bizikidetza-unitateen eredu hori betetzea, eta, beraz, ez lirakeke jada dauden egoitzak aldatu behar izango.

EM5. C2 (Bilbo-Muskiz) lineako jarduketa.  
Garraio jasangarriaren eredua.


**URBINAGAKO TRUKATZE-GUNEA:** hainbat garraibideen arteko konexioa Bilbo-Muskiz C2 linean ezartzeko jarduketa hau **oraindik ez da hasi**. Proiektu honen **4 milioi euroko** partida Lurrealde-plangintza Sailari **besterekin zitzaien**, «Ezkerraldeko auzo kalteberak birgaitzea» proiekturako. Bizkaiko Garraio Partzuergoaren (BGP) eta ADIFen arteko akordioa lortu da, eta, horren ondorioz, Bilboko metroaren 2. linearen eta C-1 (Bilbo-Santurtzi) eta C-2 (Bilbo-Muskiz) lineen artean aldatzeko Urbinagako trukatzeko-gunea eraikitzeko hitzarmena likidatuko da. Erabaki hori hitzarmenaren beraren denbora-muga eta ADIFek proiektu horiek zaharkituztat jotzen dituela –ADIFen araudiaren egungo estandarrak betetzen ez dituztelako– kontuan izanda hartu da.

**AZPIEGITURAK ETA GARRAIO JASANGARRIA:** bost ekimen burutu dira, eta **bizikleta eskualdearen ardatz** bihurtu da (Bizkai Bizi, Bizi Park, Bizi Puntu eta Barakaldo eta Mamarigako Bidegorriak). Ildo horretan, udalerrietako espazioak hobetzeko eta berronertzeko jarduketak sustatu dira (abian daude):

- ✓ Erandioko Bulebarra
- ✓ Zubi mugigarria

**BIDE-SEGURTASUNA ETA KOHESIOA:** proiektu sustatzaile honek eskualdean segurtasuna eta bide-kohesioa hobetzeko hiru esku-hartze garrantzitsu barne hartzen ditu. Esku-hartze horietako bat burutu da jada, eta bi diseinu-fasean daude:

- ✓ Ezkerraldeko Gurutzetako Ospitalera ailegatzeko sarbideak hobetzea (burututa).
- ✓ Ibai-azpikoaren proiektua idaztea (diseinu-fasean).
- ✓ Gurutzetako II. trukatzeko-gunearen (Arrontegi-Gurutzeta norabidean) proiektua idaztea (diseinu-fasean).





Erandioko Bulebarra



Erandio- Barakaldo zubia



Barakaldoko Bidegorria



**ONDAREA BERRESKURATZEA - ESKAINTZA TURISTIKOA:** proiektu honek funtsezko ekimenak ditu abian, hala nola **Lutxanako geltokia** birgaitzea eta **Pobaleko Burdinolaren** ubidea eta teilatua birmoldatzea, eskaintza turistikoa eta ondarearen kontserbazioa sustatzeko helburuarekin.

✓ Pobaleko Burdinola

2024an ubidea birmoldatzeko proiektua eguneratu da, eta, aurreikuspenen arabera, lizitazioa 2025eko lehen seihilekoan egingo da. Gainera, teilatua birgaitzeko proiektua idazteko baldintza-agiriak 2024an argitaratu ziren.

✓ Lutxanako geltoki historikoa

Lutxana-Barakaldo ADIF geltokia birgaitzeko obrak 2024ko urrian hasi ziren; hala, geltokia trenbidearen alorrari lotutako eraikin turistikoa bihurtuko da. Lanak urriaren 4an hasi ziren.



Lutxanako geltokia



Pobaleko Burdinola